EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIA
AGENCIA DE CALIDAD DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO
UNIBASQ

Udako ikastaroa 2019
Bolonia Hogei Urte Geroago

2019ko uztailaren 11 eta 12an Unibasq-ek "Bolonia Hogei Urte Geroago" izeneko uda ikastaroa antolatu zuen Donostiako Miramar Jauregian.
Uda ikastaro honen aurkezpena uda ikastaroen zuzendariak berak egin zuen, Itziar Alkortak. Hark, gaiaren sarrera burutu ondoren, Woody Allenen filmari buruzko aipamen bat ere egin zuen, alboko areto batean ari baitziren hura filmatzen.
Jarraian, Unibasq-eko zuzendaria eta ENQA-ko presidenteordea den Eva Ferreirak ongietorria egin zien hizlariei eta bertaratutakoei eta, une hartaz baliatuz, eskerrak eman zizkien Unibasq-eko langileei. Segidan, Cristina Uriarteri eskaini zion hitza, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari; haren hitzetan, Boloniaren xedea Europa indartzea da, eta noranzko horretan pauso esanguratsuak eman ditu Euskadik, titulazioen euskal ereduak islatzen duen eran. Baterako lana eta adostasun-bilaketa azpimarratu zituen sailburuak, eta baita euskal unibertsitatearen koordinazio eredua ere. Uriartek azaldu zuen adierazle altuek gure sistema bermatzen dutela eta Boloniak hori guztia sustatu eta bultzatu duela. Unibasq sortu izana proiektu hori guztia ezartzeko eta sustatzeko asmoaren isla garbia dela esanez amaitu zuen bere esku-hartzea, eta abagune hartaz baliatu zen esateko prozesu bateratzailea ez dela beti eskuzabala izaten eta errealitate desberdinen aurrean begiak ixtea ekar lezakeela.

Itziar Alkorta, Uda Ikastaroen Zuzendaria. Cristina Uriarte, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua, eta Eva Ferreria, Unibasqeko Zuzendaria

San Prudencio, 8
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno.: (+34) 945 123 356

Ikastaroaren irekiera ofizialaren ostean, Aitor Zurimendik, Unibasq-eko zuzendari laguntzaileak, lehenengo bi hizlariak aurkeztu zituen: Eva Ferreira eta Enrique Collell Blanco, Zientziaren, Berrikuntzaren eta Unibertsitateen Ministerioko Idazkaritza Orokorraren Kabineteko Zuzendaria.
1999an Bolonia sinatzeko asmoa ikasleen eta irakasleen zirkulazio librea sustatzea zela adierazi zuen Ferreirak lehendabizi, horretarako titulu ezaguterrazen sistema bat ezarriz, oztopoak eraitsiz eta irizpide eta metodologia alderagarriak erabiliz.

Eva Ferreira, Unibasqeko Zuzendaria

Unibasq-eko zuzendariak europar esparrua babesteko beharrari buruzko bere uste sendoa azaldu zuen. Dena den, erakunde helduei eta berriki finkatutakoei ezin zaizkiela prozedura berdinak ezarri ohartarazi zuen. Ildo beretik, unibertsitate helduetan erakundeen akreditazio-protokoloen inflazioa murrizteko beharra aipatu zuen, eta pertsonek horiek onartzea eta jarduera akademikoak gizartearengan duen eragina modu eraginkorragoan zabaltzea behar dugula baieztatu zuen.
Jarraian, Enrique Collell Blancok hartu zuen hitza, Zientziaren, Berrikuntzaren eta Unibertsitateen Ministerioko Idazkaritza Orokorraren Kabineteko Zuzendariak, eta hark bere ministerioko politika publikoei buruz eta espainiar unibertsitate sistemaren berrikuntzari buruz hitz egin zuen.
Irakasle-ikerlarien estatutu bat zehaztearen beharrari buruzko azalpenak emanez hasi zen Collell, eta hori unibertsitateko irakasleen ibilbideari lotuta egon beharko litzatekeela nabarmendu zuen.
Bere esku-hartzea amaitzeko, espainiar unibertsitate sisteman Euskal Herriko gradu eta master dualen gisakoak txertatzeko nahia adierazi zuen Collellek.
Besteak beste, unibertsitateko irakasleen kontratazioa eta irakasle-ikerlarien figura berriz definitzea bezalako gaiak mahai-inguru batean landu eta gero, goizeko bigarren atalera egin zuten jauzi. Bigarren atal hori Christoph Grollimund ENQA-ko zuzendariaren esku egon zen, eta GHEEak ekarritako onuren sinesle amorratua zela azalduz

zabaldu zuen bere hitzaldia, ikasle gisa berak bizitako esperientziaren eta bere ibilbide akademikoa zenbait herrialdeetan onartzeko izan zituen zailtasunen ondorioz.

Christoph Grollimund, ENQA-ko zuzendaria

Grollimundek Bolonia prozesuak “nola?” eta “zer?” ekarri zuen azaldu zuen eta Bolonia prozesuaren etorkizunari dagokionez, ENQAko zuzendariak adierazi zuen beldur zela suspertze sasipolitiko eta teknokratikoa eta une honetan modan dauden indar zentrifugoak uztartuko ote diren, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua zatikatu dezaketenak. Ildo beretik, aipatutako erronka horiei aurre egiteko saiakeran ENQA babesteko beharrezkoak diren hiru zutabeak ezarri zituen: kalitatea bermatzeko agentzien interesak ordezkatuta egotea; taldekideei eta beste interes-talde batzuei zerbitzuak eskaintzea; eta kalitatearen kanpo-kontrolera berrikuntza erakartzea.
Jardunaldiko hurrengo hizlaria José Arnáez Vadillo izan zen, ANECAko zuzendaria, eta hark hezkuntzaren alorreko lankidetzak aurrerapauso txikiak izan dituela azpimarratu zuen. Halaber, europar esparruak mugikortasunaren alorrean hobekuntza nabarmena ekarri duela azaldu zuen.

San Prudencio, 8
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno.: (+34) 945 123 356

José Arnáez Vadillo, ANECAko zuzendaria, José Ángel Domínguez Pérez, ACSUCYLeko zuzendaria eta Antonio Serrano ACPUako zuzendaria

Jarraian, José Ángel Domínguez Pérezek Bolonia ezarri zenetik zer aldatu den eta zer geratzen den egiteke argitu zuen, eta mugarri batzuk aipatu zituen, esate baterako, ikaslearengan oinarritutako ikaskuntza. Era beran, GHEEaren ondorioz gehiegizko burokratizazioa sortu den sentipena partekatu zuen. Bere hitzaldia amaitzeko, Domínguezek esan zuen tituluen katalogoko zurruntasuna hautsi egin dela eta irakaskuntzen berrikuntzari bultzada bat eman zaiola, eta tituluen heziketa-programek egungo gizartearen eskakizunei erantzutea bilatzen dela.
Antonio Serranok, Aragoiko Unibertsitateko Kalitatearen eta Prospektibaren Agentziako zuzendariak, Aragoiko sistema azaldu zuen eta agentzien lana nabarmendu zuen prozesuetan erraztasun eta oreka handiagoa lortzeko xedez komunikazio- eta armonizazio-zubiak eraikitzeko saiakeran.

Paolo Comanduccik italiar esperientziari buruz jardun zuen, eta unibertsitateen artean ez dela berdin funtzionatzen adierazi zuen; Boloniak aurrera jarraituko duela baina berrikusketa sakona behar duela esanez amaitu zuen.
Hurrengo atalean, Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako ordezkariek euren erakundeetan Bolonia lantzeko erabili dituzten prozesu ezberdinei buruz jardun zuten.
UPV/EHUko Idoia Fernándezek esan zuen ez dela erraza euskalduntzea eta nazioartekotzea uztartzea, eta eskaintzaren dibertsifikazioak jazotako aurrerapena azpimarratu zuen, ikaskuntza aktiboan, praktikoan edota esperientzian eta mugikortasunean oinarritutako ikaskuntzan arreta jarriz.

San Prudencio, 8
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno.: (+34) 945 123 356

José Arnáez Vadillo, ANECAko zuzendaria, Elena Auzmendi, Deustuko Unibertsitateko Antolamendu Akademikoa, Irakaskuntzaren Berrikuntza eta Kalitatea, Eva Ferreira, Unibasqeko Zuzendaria, Idoia Fernández, UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordea, Jose Angel Dominguez, ACSUCYLeko zuzendaria eta Christoph Grollimund ENQAko zuzendaria.

Deustuko Unibertsitateko Elena Auzmendik Bolonia ezartzearen ondorioz izandako aldaketa pedagogikoak nabarmendu zituen, bai irakaskuntzaren ikuspegiaren aldetik, bai irakaslearen profilaren eta ikasteko moduaren aldetik, bai metodologiei eta irakaskuntzari dagokionez eta baita beharren berregituratzeari dagokionez ere. Horrek ikaskuntzaren bikaintasuna eta esfortzu pertsonala eta ekonomikoa ekarri duela azaldu zuen.
Mondragon Unibertsitateko Jon Altunak unibertsitate-kultura berri baten sorkuntza aipatu zuen, tituluen berrantolaketatik abiatu zena eta hasierako fasean unibertsitate kooperatibo autonomo eta autogestionatuaren eredu bat indartzean oinarritu zena. Amaitzeko, Bolonia modernizazio-prozesu bat izan dela esan zuen baina ez duela unibertsitateen egokitzapena garatu bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzara egokitu daitezen eta ikuspegi tradizionalarekiko jauzi kualitatibo bat ekarri duela, pertsonaren eta langilearen garapenean oinarrituta.
Hitzaldiak amaitu eta gero, mahai-inguru bat zabaldu zen. Gaur egun, unibertsitateen erronka egungo gizartearen eskakizunei maila ugaritan aurre egiteko gai izango diren pertsonak sortzea dela aipatu zuten bertan eta, herrialde bakoitzak erronka horiei aurre egiteko modu ezberdin bat daukanez, unibertsitateek gizartearen taupadengandik gertu egon behar dutela esan zen.

San Prudencio, 8
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno.: (+34) 945 123 356

María Vallet-Regí, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Farmazia Fakultatearen Kimika Ez-Organiko eta Biologia Ez-Organikoko Departamentuaren zuzendaria eta Guy Haug, Europar Batasuneko Ebaluazio eta unibertsitate-garapenean aditua.

Uda-ikastaroko bigarren jardunaldian María Vallet-Regík parte hartu zuen. Boloniaren jatorriak zeintzuk izan ziren laburbildu eta hasieran haren aurkako mesfidantza izan zela jakinarazi zuen. Programa honek ekarritako ideia nagusia ikaskuntzaren bidez gizartearen eskakizun berriak artatzeko heziketa eskaintzea zela argitu zuen.
Ondoren, Guy Haugek hartu zuen hitza, eta Bolonia ezartzerako unean Espainiaren berezitasunak zeintzuk izan ziren eta zer onura ekarri zituen adierazi zuen; dena den, egun, Bolonia-ostean gaudela uste du eta GHEEren eraikuntzak aurrera jarraitu behar duela.

San Prudencio, 8
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno.: (+34) 945 123 356

Javier Torraella, Soraluzeko ingeniaritza alorreko zuzendaria, Asier Aloria Sánchez, Confebask-eko heziketa-saileko zuzendaria, Pilar Oronoz Amunarriz, Zabalketa GKEren heziketaren bidezko eraldaketa sozialaren arloko koordinatzailea, eta Eva Caballero Domínguez EITBko kazetaria.

Haugen aurkezpena amaitzean, Eva Caballero Domínguez EITBko kazetariak moderatutako mahai-inguru bati eman zitzaion bide, eta Javier Torraella (Soraluzeko ingeniaritza alorreko zuzendaria), Asier Aloria Sánchez (Confebask-eko heziketa-saileko zuzendaria) eta Pilar Oronoz Amunarriz (Zabalketa GKEren heziketaren bidezko eraldaketa sozialaren arloko koordinatzailea) izan ziren solaskideak. Enpresen presentziak eta enpresek unibertsitateekin duten lankidetzak ikasleen garapen pertsonalera eta profesionalera bideratuago dauden unibertsitate irakaskuntzak sustatzen egiten ari diren lanari buruz eztabaidatu zuten haiek. Unibertsitateek mota askotako eta alor ezberdin askotako pertsonentzako heziketa eta berrikuntza, ezagutzaren baterako sorkuntza, sormena, gogoa eta motibazioa eskaintzen dutela aipatu zuten. Enpresek, berriz, irakasleen eta ikasleen heziketa, metodologia aktiboak eta parte-hartzaileak, produktibitatearen printzipioa, hezkuntza-baliabideak, errealitate eta kultura berrien ezagutza eta harremana, diziplina-aniztasuna eta balioak eskaintzen dituztela azaldu zuten.

San Prudencio, 8
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno.: (+34) 945 123 356



Ainara Lagüera Castillero, Deustuko Unibertsitateko ikaslea, Laura Peiró Márquez, Zaragozako Unibertsitateko ikaslea eta Alma Navarro Sanmamed, UPV/EHUko ikaslea.

Enpresaren ikuspegia entzun eta gero, irakasleriariChris eman zitzaion hitza. Irakasleen ordezkari moduan UPV/EHUko Alma Navarro Sanmamed, Deustuko Unibertsitateko Ainara Lagüera Castillero eta Zaragozako Unibertsitateko Laura Peiró Márquez izan ziren. Onarpen aldetik aurrerapenak izan diren arren, doktoretza-hitzarmenik ez dela ohartarazi zuten haiek eta masterren artean homogeneotasun gutxi dagoela. Mugikortasuna, nazionala zein nazioartekoa, konplexua dela eta ikaslearengan oinarritutako ikaskuntza oraindik ez dela gehiegi ezarri ere adierazi zuten. Horrez gain, ikasleen jatorri sozialaren eta ekonomikoaren arabera irisgarritasun-desberdintasunari buruzko kezkak, eta ikasleen parte-hartzearen beherakadari buruzko kezkak mahaigaineratu zituzten.

San Prudencio, 8
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno.: (+34) 945 123 356

Aitor Zurimendi, Unibasqeko Zuzendari-ordea, Gidor Bilbao, Filologia Klasikoan doktorea. UPV/EHUko Letren Fakutateko irakaslea eta Eva Ferreira, Unibasqeko Zuzendaria

Gidor Bilbaok amaiera bikaina eman zion jardunaldiari, Hitz-mitz 27 hitz liburua aurkeztuz (Unibasq-ek sustatu duena), eta bertaratutakoei Xabier Paya RuizenPil bideo bat erakutsiz; hark Nelson Mandelaren aipu bat hartu eta bertso bihurtu zuen hiru hizkuntza ezberdinetan, euskaraz, gaztelaniaz eta ingeleraz, eta solaskidearen ama hizkuntzan komunikatzen saiatzen zarenean besteengan sortu dezakezun eragina erakutsi zuen hala.

San Prudencio, 8
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno.: (+34) 945 123 356